



EBAZPENA 2011EKO EKAINAREN 9KOA, HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO LANGILERIAREN KUDEAKETAKO ZUZENDARIARENA, HORREN BIDEZ BERRITZEGUNEETAN ZENBAIT LANPOSTU ZERBITZU EGINKIZUNETAN BETETZEKO DEIALDIA EGITEN DA.

2011ko maiatzaren 12ean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketa Zuzendariak emandako Ebazpenaren bidez Berritzeguneetan hainbat lanpostu zerbitzu eginkizunetan betetzeko deia egin zen.

Adierazitako Ebazpenaren 8. oinarren ezarritakoaren arabera, eta Batzordeak proposaturik,

EBATZI DUT

Eranskinean ageri diren esleipendunen zerrenda argitaratzea

ERREKURTSOAK

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatuak, bere 114. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko ekainaren 9an

LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA

Juan Manuel Aramendi Arteaga